

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

horditurik

«Jadanik iragan dira hamar urte **horditurik** etxera eraman behar izan ninduteneko lehen arratsetik.»

karrika

«Garai hartan, orain bezala, Rum **karrikan** bizi ginen...»

zela

«Gogoratzen dut whiskya edan ondoren edalontziaren **zelara** begira gelditu nintzela...»

auhen

«Ez da atsegina **auhenak** aditzea, oinazea kutsatu egiten baita.»

eskaratze

«Amonak hartu zuen kikara [...] eta **eskaratzera** joan zen.»

kausitu

«...ama maiz **kausitzen** nuen horditua, bakardadeagatik, ohituragatik ere bai.»

oren

«Ibili [...] zangoek **orenak** irabazi nahirik bezala.»

usu

«Baina ez nintzen **usu** egoten etxean...»

altzifres

«...lore more bi ipini genituen haren hilobiaren gainean, han, **altzifres** garaien artean...»

bekaitz

«...eta maindire arterat sartzen nintzen haren **bekaitzari** so egin gabe.»

ediren

«**Ediren** ahal nituen botila guziak kentzen nizkion...»

eldarnio

«Nik ez nion **eldarnio** hari kasurik egiten, baina egunetik egunera ahultzen eta hondatzen ikusten nuen ene amatto...»

xeratsu

«Maggie **xeratsuagoa** zen orduan, ama eriturik zela.»

igurikatu

«Hara, han zegoen higitu gabe, hil nezan **igurikatzen**...»

betizu

«— Etor hadi ohera! — erran nion, **betizuari** bezala.»

ebatu

«Haren gorputza ene alboan izan nuenean, hotza, **ebatu** egin nuen eta zaflatu, ezpainetatik odol hari bat zeriola geratu zen arte...»

erroi

«Ortzera begiratzen dut eta hegaztiak ikusten ditut, baina ez dira usoak, **erroiak** baizik, edo miruak.»

miru

«Ortzera begiratzen dut eta hegaztiak ikusten ditut, baina ez dira usoak, erroiak baizik, edo **miruak**.»

ozpeldu

«...munduko miru guziak bilduak, ekialdetik sartalderantz abiatuak ortzen guzia estaltzen dutela, zohardia **ozpeltzen** dutela.»

zohardi

«...munduko miru guziak bilduak, ekialdetik sartalderantz abiatuak ortzen guzia estaltzen dutela, **zohardia** ospeltzen dutela.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

ospeldu	«...munduko miru guziak bilduak, ekialdetik sartalderantz abiatuak ortzen guzia estaltzen dutela, zohardia ospeltzen dutela.»
ailedi	«Heriotzea, gauaren alaba, ametsaren emaztea, ailedi enekiko amoltsua izan.»
erbain	« Erbainez betea du aurpegia, baina ez da itsusia, liraina da, gorputz guzia urdindu zaion arren.»
erresumin	«Erresumina zen. Ordura arte sekula sentitu ez bezalako erresumin erregarri bat...»
lerratu	«Don Antonio zitalari zion gorrotoa, etengabe begibistan zuen lantegirantz lerratu zitzaion oharkabean.»
tutu	«...ordu jakinetan marru eginez, <i>hemen naukak</i> esanez bezala, sar-irtenaldi orotako tutuaz desafioka.»
zemaikor	«...amorru eta ezintasunezko <i>akordatuko haiz!</i> bat jalgi zen trumoitsu eta zemaikor ...»
okaztagarri	« Okaztagarri zitzaion. Ezin zuen fabrikaren presentzia gehiago jasan...»
mirabe	«Egunaren hogeita lau orduak eskainiko zizkion Demetriori. Haren zerbitzari eta mirabe izango zen aurrerantzean.»
zantzu	«...Paularen irribarre gogo hura irribarre amatiarra zeneko lehenengo zantzua ...»
gobernatu	«Laurogei burutik gorako artaldea eta lau ahuntz gobernatzen zituen, eta ahuntzekiko saioek, hain zuzen, zaildu zutela zioten.»
zaildu	«Laurogei burutik gorako artaldea eta lau ahuntz gobernatzen zituen, eta ahuntzekiko saioek, hain zuzen, zaildu zutela zioten.»
asper	«Bertatik igotzen ziren Arizpeko emakumezkoak herriko estartak esperantzarik gabeko asperra bihurtzen zitzaizkienean.»
belaze	«Maiatzeko ilunabarrean ez da belazean etzango zentzuz jokatzeko duenik...»
fortunatu	«Fortunatu, zabalagoa zen gorputz meharra zulatu beharrean, burua zartatzea otutzea fortunatu zen.»
gorritza	«Joxe Ferminen etxean gorritza guzti hura begiztatu zutenean, garrasi haundi bat eta lau txiki entzun ziren herrian.»
zahato	«Eta azkenean, Braulio, ahuntzainak eskaintzen zion zahatotik edan gabe, etorria zen bidean behera jaitsi omen zen.»
jetzi	«Mesede bat egin behar didazu, Pedro, entzun zion lagunari, ardia jetzen ari zelarik.»
sarkastiko	«Ilunabar hartan, berriz, ironiko gabe, sarkastikoa iruditzen zitzaion "poeta" hitza.»
zurrun	«Eta ez Paula izorregarria ez zelako, ohola baino zurrunago zegoelako baizik.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

alarau	«...oihu ikaragarri hark, mendeetan zehar harpeetatik zetorren alarau betiereko, basati hark garuna taladratu zion arte.»
betiereko	«...oihu ikaragarri hark, mendeetan zehar harpeetatik zetorren alarau betiereko , basati hark garuna taladratu zion arte.»
gertu	«Paula haren ondoan zegoen, jezarririk bera ere, gertu bezain mutu.»
kokildu	«...eta zokora erori zen berriro, eta gorputz utzia areago kokilduz , burua belaunetan babesturik, kantoi bihurtu zen.»
kupida	«Eta arizpearra bihotz biguneko jendea da; horregatik jaio zitzaien kupida mikatz hura
mikatz	«Eta arizpearra bihotz biguneko jendea da; horregatik jaio zitzaien kupida mikatz hura.»
ahal	«...ez ahal zuen tristatuko!»
xaxatu	«Ederki zekien herioak txakurrak xaxatzen . Alferrik zuen Xuri lasaitzen saiatzea.»
karraskilo	«Bertan kuzkurtu zen, bide bazterreko karraskiloen kontra. Zain gelditu zen.»
kuzkurtu	«Bertan kuzkurtu zen, bide bazterreko karraskiloen kontra. Zain gelditu zen.»
txatxar	«Sugar txatxarrak ernatu ziren lehenik. Adartxo ihar batzuk inguratu zituen sutara.»
solas	«...erretorearekin bezperaurrean izandako solasa etorri zitzaion gogora.»
xehe	«Ordaindu egin zuen. Markoxek bihurtu zion xehe jaso eta kanpora abiatu zen bera ere.»
gose	«Txerri goseak ezkurra amets, ordea.»
goitinahi	«—Goizeko goitinahi hori... —hitz egin zuen berriro.»
ilbehera	«Kalera atera zenean, gaugiro ederra zegoela ikusi zuen. Ilbehera .»
geriza	«Tunel baten iluntasunaren gerizan bidaia luzean elkarri begira joandako bi gazteren arteko sexu-harremanen kontakizunak...»
kostea kostatuta	«Milioi hura eskuratuko nuen kostea kostatuta .»
tajuzidade	«Treneko eszena erotikoaren istorioa esaterako, huts samarra iruditzen zitzaidan, tajuzidade gutxikoa.»
ario	«...konpetentziaren bagoietan kokaturiko ipuin bat aurkeztea milioiari aldeztatik ario egitea zen.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

kulunkari	«Nik nekiela, Donostiatik Bilborako tren kulunkaria "Ferrocarriles Vascongados" enpresarena izan zen betidanik...»
pattal	«Maila apalagoko burutaziorik ere izan nuen [...] Pattala , bigunegia.»
usain min	«...tren geltokiek txiki denborara itzulrazten ninduten, lokarri, hango komunetako txix usain mina zela. Pattala, bigunegia.»
plantak egin	«Errazena bere buruaz beste egitearen plantak egitea zatekeen...»
puntaneko	«...amak alaba bakarra baino gordeagoa neukan ipuin hau, puntaneko kontakizun mordoska osatzean [...] argitaratzeko.»
txibitara	« Txibitara irtengo da goizaldera, bakarrik, eta batela hutsik azalduko da haitzetatik hurbil...»
zirrara	«...berotasun berezi hura [...] zor zitziola ezerezetik hasi eta istorio bat asmatzeko sortu ohi duen zirrara .»
zurruta	«...lehenengo musutik nabaritu nuen berotasun berezi hura zurrutari baino neurri handiagoan zor zitziola [...] zirrari.»
nontsu	«Inondik ahal zela trena sartu behar nion kontakizunari eta erabaki nuen ondoen nontsu egokituko zatekeen...»
arre	«"Donostiako giroak, arrea , bustia, kresal usainekoa...»
duintasun	«...lehenengo klaseko bagoiek ohoretsu eusten diote beren izenari, baina duintasuna dakar mindua.»
kresal	«"Donostiako giroak, arrea, bustia, kresal usainekoa...»
behazun	«...aspaldian ezer ez janaren behazun korroskada ezpain bazterretatik boteaz...»
temati	«Edurne baiezkoaren alde agertzen zen; ni beti ezezkoan temati .»
zarrapastroso	«...konturatu da umea atzean geratu zaiola, andeneko banku batean luzetara lo datzan eskale zarrapastroso bati begira.»
mataza	«...ordu luzeak emango genituen istorioaren hariak mataza bakarrera biltzen beste ezertan hasi aurretik.»
uzkurtasun	«Azkenean dutxa isilarazi eta egunari eta egoerari ez zegokien uzkurtasunez [...] "lagun izango gara" esan zidan...»
guri	«Aurpegia ere ardi gazta kolorekoa zuen [...] ximur eta orbainik gabea, guria , zaildu gabea, bizar arrastorik ez zuena.»
nolanahi	« Nolanahi , Edurneren artez Enrique une libreetan Bolivarrek ezaguturiko Madrilgo bazterrak bixitatzen jarri genuen...»
orbain	«Aurpegia ere ardi gazta kolorekoa zuen [...] ximur eta orbainik gabea, guria, zaildu gabea, bizar arrastorik ez zuena.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

xalamatika

«Pertsonaia nagusi eta ia-ia bakarraren deskribapen fisikoa egitean ere **xalamatika** batzuk izan genituen.»

ajatu

«...alferreko zirela lozio eta gainerako, kolorea ilean ez ezik animoan ere **ajatu** egin zitzaiola eta.»

behiala

«— **Behiala** beltz izandako ileak zuritzen hasi zitzaizkion...»

erretolika

«...galdetu nion bat-batean bere kexu **erretolika** etenaz.»

pigura

«Halere, ez zuen halako **nabarmen** eta barregarri txikieria hau salbu...»

zatar

«Orduan, mutilzahartasunaren salatari, gauzarik **zatarretan** zatarrenak bistatzen zituen jendearen aurrean...»

batel

«Trena **batelaren** truk eta Hondarribia kendu eta Donostia jarri.»

zipiztu

«Itsasoan, gorpuaren falta ulergarria zen guztiz, baina trenak harrapaturiko gizonarena ez da desegiteraino **zipizten**.»

bailuten

«...joandako urtearen berri ez **bailuten** mintzatzen ziren berarekin...»

eztenkada

«...denak **eztenkada** bihurtzen zitzaizkion Enriqueri...»

galtzarbe

«...iluntzeko bederatziak aldera irten zen arreben pisutik soinean kaiku berde bat, **galtzarbean** partituren karpeta.»

babo

«**Babo** karaz begiratzen zion zerbitzariak hasieran...»

kara

«**Babo kara**z begiratzen zion zerbitzariak hasieran...»

kraka

«Bat bazen egokia: edadetu samarra, **krakak** eta zikinak askorik jan gabea, burua soildua...»

makar

«...diru mordoia begien parean jarri zionean, perezak presa bihurtu zitzaizkion eta **makarrak** izartxo...»

soildu

«Bat bazen egokia: edadetu samarra, krakak eta zikinak askorik jan gabea, burua **soildua**...»

txitxi

«Bat bazen egokia: edadetu samarra [...] burua soildua eta eta eskaleek nekez osa zitzaketen **txitxi**en jabe zena.»

futada

«Halako batean, orruen artetik trenaren bi **futada** entzun dira urrutian.»

morokil

«Aurpegia zen tokian haragi eta odolezko **morokil** ezagutezina geratu da.»

aidanez

«Brikolagea eta puzzleak egitea zituen gogokoen, **aidanez**.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

aniztun	«...sasi-azterketaren galbahetik iragandako edozein orrik kolore aniztun zirriborroaren itxura hartzen zuelarik.»
galbahe	«...sasi-azterketaren galbahetik iragandako edozein orrik kolore aniztun zirriborroaren itxura hartzen zuelarik.»
tira	«Zartagi, kazuela, xehetzaile eta gainerakoekin hasi zen, nik ezagutzen ez nion sukalderako tira izugarriren baten menpean edo.»
zerri egin	«Afari ona egin behar genuela esan zidan eta emateko mantala, bestela arropa berria zerri egingo zuela eta.»
sopikun	«Horregatik, txantxatan [...] bota nion, "nik dakidan bat harrapatuko bazenu...", irribartsu, sopikun .»
ezagun izan	«Operaz ez ongi ez gaizki ez zuten hitzegin. Ezagun zen entzun ere entzun zutena.»
aztoragarri	«Xehebrea zen, xelebrea bezain aztoragarri , berak jakinaren gainean, behintzat, ez baitzuen lagun-koadrilarik»
eskuera	«Nik, nire txoroan, mahai gaineko marmolezko hautsontzia kendu nion eskueratik , irribarre lelo bake-eskatzailea eginez.»
xaxatzaile	«"Behatzak hori-hori eginda daukazu" esan zidan lehor, gerrara doanak lehen gezi xaxatzailea jaurtitzen duen bezalatsu.»
suhar	« Suharra zen hizketan, norbere esana belarrietara heldu ahala berotzen joaten zen horietakoa...»
zakartu	« Zakartua zegoen itsasoa baina, oso zakartua.»
zimaurtu	«Lan biribila zimaurtu nuen nonbait, ipuin eder askoa zabor bihurtu.»
apardun	«Ate ertzeroa heltzean, jiratu zen eta lehertzeko unean izaten duen indarrez eraso zidan apardun uhinak.»
uhin	«Ate ertzeroa heltzean, jiratu zen eta lehertzeko unean izaten duen indarrez eraso zidan apardun uhinak .»
abaildua	«Bazkalondoan, nerbioek ahitua, lorik ezak abaildua , kuluxka bat egin ondoren [...] lorategira jo zuen.»
ahitua	«Bazkalondoan, nerbioek ahitua , lorik ezak abaildua, kuluxka bat egin ondoren [...] lorategira jo zuen.»
kuluxka	«Bazkalondoan, nerbioek ahitua, lorik ezak abaildua, kuluxka bat egin ondoren [...] lorategira jo zuen.»
endemas	«Bestea, Edurnek baino ez dezake asma. Endemas , [...] berriz ere gezurra izan daitekeela buruan sartu zaidanetik.»
ernai	«Egunkari eskuratu eta lehendabiziko muxua eman zion jadanik ernai zegoela jakin zezan.»
zirin	«Egungo argi zirinari berehala etorri zitzaion argi zabala igande eder baten atarian.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

narraza	«...kafesnean blaituriko opila irenstean Imanolek hartzen duen itxura narraza .»
zintzarri	«...goiko larreetan ardien zintzarriak aditzean aitona txakurrari txistuka entzun lezakeena...»
hautsak jan	«...han daude, hautsak janda , izenik ez duten erramintak ere...»
uztarri	«...aulkiren bat konpondu, edo halako baserritar batek enkargatutako uztarria egin, edo...»
mardul	«Gain hartan herriko baserri, zelai eta soro guztiak mendean zituzten bost gaztainondo mardul eta lerdin altxatzen ziren.»
mendean izan	«Gain hartan herriko baserri, zelai eta soro guztiak mendean zituzten bost gaztainondo mardul eta lerdin altxatzen ziren.»
morkots	«...lurrera erortzean gaztain morkotsek eginiko zalapartak atera zuen Miren gogoeta larri horietatik.»
lahar	«Krask! Adarra hautsi eta mutila buruz aurrera erori zen laharrak janda zegoen hesiaren bestaldera.»
atezuan egon	«Baina Mirenen gihar guztiak atezuan zeuden...»
azkazal	«...atsoaren azkazalek sabela ikutu orduko [...] amorrus beteriko makilkada batez libratu zen atzaparretarik.»
oinaztargi	«Urrutiagoko oinaztargiari ostots batek jarraitu zion zerua urratu nahian.»
ostots	«Urrutiagoko oinaztargiari ostots batek jarraitu zion zerua urratu nahian.»
zartada	«...Jainko zauritu batek ez bestek jaurtiki lezakeen tximistaren zartadak burua makurrarazi zien.»
istil	Zapla-zapla oinak istilik istil.»
zanpatu	«Imanolek zerbait biguna zanpatzen ari zela somatu zuen.»
fite	«Gezia bezain fite zabaldu zuan berria, malur beltz baten mandataria.»
jauzika	«Sugarrak kiribilka, lantarrak gora jauzika , egurrak txinpartaka...»
kiribilka	«Sugarrak kiribilka , lantarrak gora jauzika, egurrak txinpartaka...»
lantar	«Sugarrak kiribilka, lantarrak gora jauzika, egurrak txinpartaka...»
malur	«Gezia bezain fite zabaldu zuan berria, malur beltz baten mandataria.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

mandatari	«Gezia bezain fite zabaldu zuan berria, malur beltz baten mandataria .»
baratu	«Tarteka, egunak gainbehera zetozen tenorean, nire moduko mezularien egoitzetan baratzen ninduan.»
birundaka	«Tentuz hasten ninduan edaten, baina [...] luza gabe inguruko gauza guztiak birundaka hasten zitzaizkidan.»
erregalia	«Jaiki nauk eta mun egin zioat, erregalia zerbait utzi eta aldegin diat.»
karkaila	«...erdi benetan erdi txantxatan zirto eta karkaila artean nire xedea zulatu beharrez eroria.»
kitzikatu	«Malezia pitta batekin, pulpea eskaintzen zidatean, mingaina kitzikatu nahiz.»
ondoza	«...gure erresuma guzti horiei elkarren ondoza eta harmonia haundian leku uzteko bezain zabal eta haundia baita.»
ordoki	«Arroak eta mendiak, zelaiak eta ordokiak , haitzak eta basamortuak zeharkatu nizekian...»
osatu	«...ahots ezti eta legunez adierazi zidaan harek eria osatzeko sendagailua.»
pindar	«Buruan beti adimen pindarren bat galditzen bide zitzaidan, ordea...»
pitta bat	«Malezia pitta batekin , pulpea eskaintzen zidatean, mingaina kitzikatu nahiz.»
pulpea	«Malezia pitta batekin, pulpea eskaintzen zidatean, mingaina kitzikatu nahiz.»
zirto	«...erdi benetan erdi txantxatan zirto eta karkaila artean nire xedea zulatu beharrez eroria.»
adeitsuki	«Biharamonean, burua artean taupaka, adeitsuki besarkatu eta bereizi egin gintuan.»
artz	«...ilunabar batez jo nian hiriburua, inperioko hiriburua, gau izarratu artz hartan inguruko aintziren uhinek gozaro junpatua...»
artean	«Biharamonean, burua artean taupaka, adeitsuki besarkatu eta bereizi egin gintuan.»
begiratu	«...gizasemek lerra handia ditek horietara, eta beti dituk garbi, zaindu eta ederrik begiratuak .»
gaitz	«Piramide gaitzek ditek mugatzen han hodeiertza, eta gizasemek lerra handia ditek horietara...»
hodeiertz	«Piramide gaitzek ditek mugatzen han hodeiertza , eta gizasemek lerra handia ditek horietara...»
jelostiz	«Adio jelostiz despeditzen nindiaten, kortesiazko irriak eta berba amoltsuak ahoan.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

junpatu	«...inperioko hiriburua, gau izarratu aratz hartan inguruko aintziren uhinek gozaro junpatua , sehaskako sein polit bat iduri.»
leher	«...han zutabeak daudela, zernahi etxe sostengatzen, eta jauregiz leherra badela [...] jainkoen antzez eraikiak.»
lerra	«Piramide gaitzek ditek mugatzen han hodeiertza, eta gizasemeek lerra handia ditek horietara...»
naharo	«...urrez eta harribitxiz naharo bulartuak.»
sein	«...inperioko hiriburua, gau izarratu aratz hartan inguruko aintziren uhinen gozaro junpatua, sehaskako sein polit bat iduri.»
taupaka	«Biharamonean, burua artean taupaka , adeitsuki besarkatu eta bereizi egin gintuan.»
asmutsu	«Ez zekiat zenbat denboraz erratuko ote nuen labirinto asmutsu hartan barrena, etxeen fabrika perfeta miretsiz...»
bat bedera	«...eta iruditu zitzaidaan denen mosuetan halako irribarre bat, bat bederari bere patuarekiko laketasun zin eta alegera batetik sortua.»
erratu	«Ez zekiat zenbat denboraz erratuko ote nuen labirinto asmutsu hartan barrena, etxeen fabrika perfektua miretsiz...»
fabrika	«Ez zekiat zenbat denboraz erratuko ote nuen labirinto asmutsu hartan barrena, etxeen fabrika perfeta miretsiz...»
gogobeteko	«... <i>persona bakoitzarentzat [...] toki bakar, trukezin eta, agidanez, gogobeteko bat egokitua dagoenez geroztik.</i> »
karreatu	«Alde guztietatik isain sakratuak karreatzen zizkian haizeak, kantika deboten oihartzunetan bilduak.»
kordoka	«...nire erantzunkizunaren kausaz, kordoka hasi ninduan eta, ezin gehiago jasanez...»
mosu	«...eta iruditu zitzaidaan denen mosuetan halako irribarre bat, bat bederari bere patuarekiko laketasun zin eta alegera batetik sortua.»
perfeta	«Ez zekiat zenbat denboraz erratuko ote nuen labirinto asmutsu hartan barrena, etxeen fabrika perfektua miretsiz...»
zizta	«...bozkario eta beldurrezko zizta batek zeharkatu nindian nintzen guztia.»
alimalea	«"Hitza duk enperadorearen jauregiak, alimalea izanik ere, ate bat baizik ez duela...»
arestiko	«Taldearen buru, arestiko zaharra zihoan, astiro, herren txikia eginez eta lantzean behin burua nigana jiratuz, larderia haundian.»
delibero	« Delibero motz baina bizi baten ostean, irudiz zaharrena nigana inguratu zuan...»
erdeinati	«Begirada fier eta erdeinatiz eraso zidatean...»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

fier	«Begirada fier eta erdeinatiz eraso zidatean...»
izarniatsu	«Ahal nola erantzun nieran, batzuen ezpata eta ezkutu izarniatsu [...] imintzio eta jestukeriek hainbat kikildua .»
kikildu	«Ahal nola erantzun nieran, batzuen ezpata eta ezkutu izarniatsu [...] imintzio eta jestukeriek hainbat kikildua .»
lantzean behin	«Taldearen buru, arestiko zaharra zihoan, astiro, herren txikia eginez eta lantzean behin burua nigana jiratuz, larderia haundian.»
larderia	«Taldearen buru, arestiko zaharra zihoan, astiro, herren txikia eginez eta lantzean behin burua nigana jiratuz, larderia haundian.»
loka	«...eta hortik zehar barneratu ninduan ni, oinak loka eta uxkur-uxkurra.»
mardaila	«...gosari legea egin nian horiekin, jendearen mardaila indarberrituari eta kale populuetao kalapitari arretaz so.»
muker	«...zuzien itzal bihurrietan eta jendaki muker haien oinotsetan baratua zirudien paraje hartan.»
uxkur	«...eta hortik zehar barneratu ninduan ni, oinak loka eta uxkur -uxkurra.»
zuzi	«Ez zekiat zer denboraz ibili ote genituen pasadizu haiek, aldiak zuzien itzal bihurrietan...»
kalapita	«...gosari legea egin nian horiekin, jendearen mardaila indarberrituari eta kale populuetao kalapitari arretaz so.»
akitu	«...eta nik anartean ikusi ez nuen emakume akitu eta iraungia ahalaz ez nekarazteko.»
iraungi	«...eta nik anartean ikusi ez nuen emakume akitu eta iraungia ahalaz ez nekarazteko.»
isla	«... isla delikatu bat begietaratu zitzaidan, ezin esan hasieran zer zen.»
peril	«...Jainkoen hizkuntza ezin koka daitekeela gizaseme baten buruan, non ez den burua zapartzeko perilean .»
tzar	«Gogoeta hori nerabilela, ustekabea, gerlari talde batek zainduta ate tzar batera iritsi gintuan.»
zapartatu	«...Jainkoen hizkuntza ezin koka daitekeela gizaseme baten buruan, non ez den burua zapartzeko perilean.»
artamendu	« Artamenduak burutu nituenean, baimena eskatu eta gelatik irten ninduan.»
artatu	«...eta dorpeki artatu nuela gorputz ahul eta mendre hura, bazekiat.»
beratxa	«Nik hori entzun eta eskerrak bihurtu nizkioan, jaun magnifikoa, bihotz beratxa , eta berehala antolatu nizkian sendagailuak.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

hurbilagodanik

«...nire lanak **hurbilagodanik** ikusi behar eta elkarri bultza eta saka, xixtaz eta sakrez setan ari.»

ilaun

«Ederrenetarik baitzen segur, maindire laru artean ezteki bildua, hasperena bezain arin eta **ilauna**...»

karranka

«Sai saldo baten antzera han hasi zituan denak ele eta marmar, **karranka** fiakaitzean zinuka...»

laru

«Ederrenetarik baitzen segur, maindire **laru** artean ezteki bildua, hasperena bezain arin eta ilauna...»

mendre

«...eta dorpeki artatu nuela gorputz ahul eta **mendre** hura, bazekiat.»

sakre

«...nire lanak hurbilagodanik ikusi behar eta elkarri bultza eta saka, xixtaz eta **sakrez** setan ari.»

seta

«...nire lanak hurbilagodanik ikusi behar eta elkarri bultza eta saka, xixtaz eta sakrez **setan** ari.»

xixta

«...nire lanak hurbilagodanik ikusi behar eta elkarri bultza eta saka, **xixtaz** eta sakrez setan ari.»

zinuka

«Sai saldo baten antzera han hasi zituan denak ele eta marmar, karranka fiakaitzean **zinuka**...»

arranditsu

«Enperadoreak ezarrirako segizio **arranditsu** batekin arribatu gintuan lur hauetara.»

bekaizgarri

«...besta horietan erregeren itzal bihurturik nenbilen [...] apaiz eta aitonensemeak baino gorago ezarria, eta horien guztien **bekaizgarria**.»

herra

«Bazkaltzen ari gintuan, eta gorteko buruak hantxe zeudean, ene hitzetik zintzilik, irria bisaian eta **herra** bihotzean.»

inorhuts

«...besta horietan erregeren itzal bihurturik nenbilen gaixo **inorhuts** honi, apaiz eta aitonensemeak baino gorago ezarria...»

bertzun

«Aldameneko **bertzuna** hartu eta txingarrak zirikatatu zituen.»

hatsantu

«Agurea ixildu egin zen, **hatsantua**.»

ilenti

«Sua zerbait suspertutakoan, agureak **ilenti** bat aukeratu zuen.»

mizpira

«Ahokada atsegin eta sakon batzuen ostean, kea sudur **mizpiretatik** astiro kanporatuz, berriro lotu zen bere kontakizunari.»

enparauak

«...adiskiderik ez duk izan, heure burua bera salbu, **enparauekin** nork-arinago lehiak baizik ez hau lotu eta.»

ezerian

«**Ezerian** eta disziplina hertsian hazia haiz, etxetik eta herritik urrun.»

histu

«...bere uste ona ukatuko dik eta, omena **historik**, izan hintekeenaz pentsatzen higatuko haiz, malenkoniaz erreta...»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

maguei	« Magueizko soineko latzak jantzi dituk, sabelaren atseginak zer diren ez duk jakin...»
omen	«...bere uste ona ukatuko dik eta, omena historik, izan hintekeenaz pentsatzen higatuko haiz, malenkoniaz erreta...»
osin	«Bahe baten gainean ari haiz, urrats dorpe bat eta osinera amilduko haiz...»
pairatu	«...on da hasieran paira dezan, on da zaildu dadin, gero berandu izango da, gero ezin izango da gehiago.»
zindo	«Bete ezak, bada, hire eginbidea zuzen, sendo, zindo .»
azalia	«Gaitza zen, zainarta, gaztetasunak betegintzarrearen azalia abesten zuen bere gorputzean.»
betegintzarre	«Gaitza zen, zainarta, gaztetasunak betegintzarrearen azalia abesten zuen bere gorputzean.»
lehiaz	«...aitari eskuan mun eginik kanpora atera zen, azkar, lehiaz , zeraman mezuaren ihesi iduri.»
loadarrak	«Astiro mugitzen zen, bere loadarren higidura bakoitzari zentzu sakon bat emango balio bezala.»
mun egin	«...aitari eskuan mun eginik kanpora atera zen, azkar, lehiaz, zeraman mezuaren ihesi iduri.»
tronpatu	«Hiriko zalapartak ez hazala tronpa .»
zainarta	«Gaitza zen, zainarta , gaztetasunak betegintzarrearen azalia abesten zuen bere gorputzean.»
milikatu	«Garra jaio bezala hil zen, azken egur mamia milikatu eta erraustu ondoren itzali.»
mudantza	«Hauxe da, mudantzarik gabe, luzaro gorde dudana oroitzapena.»
propioagoa izan	«...nik ezetz, propioagoa zitzaidala leku hura zerbitu ahal izateko.»
sesio	«Horrez gain sesio txiki bat ere izan genuen mahai inguruko jezarlekuak banatzerakoan...»
uda min	« Uda mineko eguna gehiago zirudien udaberrikoa baino.»
behatze	«...gona estanpatua soinean..., " <i>hippy</i> samarra" erabaki nuen errezelozko behatze azkar baten ondoren.»
bisaia	«Biharamunean, nire asmoa hori ez bazen ere, eguzkia bisaian eta hamarrak erlojuan esnatu nintzen.»
errezelo	«...gona estanpatua soinean..., " <i>hippy</i> samarra" erabaki nuen errezelozko behatze azkar baten ondoren.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

palagu

«**Palagu** batzuekin bere gona luzean endredatu zuen aurreko haserrea ahaztarazten ziola.»

zarpail

«...gela erditxoan kokatu genuen, saretxo **zarpaila** nola zutitu pentsatzen ari ginela.»

txirtxilatu

«Baziren, halaber, bolero plaka zakarrak eta, teontzi **txirtxilatu** baten azpian pipiek jandako zenbait liburu...»

beta

«Eta ni alde batetik pozik nengoen, umearen zama arindu zitzaidalako, nire gauzetarako **beta** luzatua ikusten nuelako...»

oso bat jarri

«Eta bitarte hartan **oso bat jarri** ziren Ibon eta Maria.»

pipi

«Baziren, halaber, bolero plaka zakarrak-eta, teontzi txirtxilatu baten azpian **pipiek** jandako zenbait liburu...»

zapuztu

«Eta ni alde batetik pozik nengoen [...] baina, bestaldetik, **zapuztu** samar sentitzen nintzen...»

eszentriko

«Auzokoa (...) adinean sarturiko abokatu eszentrikoa genuen, dibortziatu, bufetea utzi eta erretiratu antean bizi zena.»

kasketaldi

«Orduetan egongo zen horrela, hegazti arraio baten **kasketaldien** menera.»

menera

«Orduetan egongo zen horrela, hegazti arraio baten kasketaldien **menera**.»

bero sapa

«Baina ez, **bero sapa** izan arren, pozez kabitu ezinik zebilen, gora eta behera zakurraren atzetik.»

itsaslabar

«Bertan, **itsaslabarren** oin-aldeko haitzartean, bazen sartune bat...»

lauso

«...hiru balandroren zetaka zuriak salbu, urrutira, zerua eta itsasoa funditu egiten ziren ortzemuga **lausoan**.»

ortzemuga

«...hiru balandroren zetaka zuriak salbu, urrutira, zerua eta itsasoa funditu egiten ziren **ortzemuga** lausoan.»

potin

«...porturatzen ari ziren kargaontzien errainu ilunak agertu zitzaizkigun, halako **potin** zabukariak, biraka zebiltzan kaioak...»

txilar

«...korrika bizian hasi ginen **txilar** eta lirio morez beterik zegoen muna batetik...»

zabukari

«...porturatzen ari ziren kargaontzien errainu ilunak agertu zitzaiz- kigun, halako potin **zabukariak**, biraka zebiltzan kaioak...»

zetaka

«...hiru balandroren **zetaka** zuriak salbu, urrutira, zerua eta itsasoa funditu egiten ziren ortzemuga lausoan.»

mixtura

«...zeren jadanik kresalaren usain sarkorra, ergia eta beroaren **mixturaz** sorgorturik bainengoen.»

sorgorturik

«...zeren jadanik kresalaren usain sarkorra, argia eta beroaren mixturaz **sorgorturik** bainengoen.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zarrasta	«...salto batez ur gardenetan murgildu nintzen. Hura zarrasta! »
gantz	«Neska segaila zen, gantz izpirik gabekoa.»
segaila	«Neska segaila zen, gantz izpirik gabekoa.»
zafratu	«"Deskuidatu egin haiz, neska", pentsatu nuen eta ura amorrus zafratu , besoekin, hankekin, ondo nekatu arte.»
kinkaila	«—Bada, bihar ikusiko dugu zer kinkaila mota den —esan nion nik.»
ostendu	«...eguzki bola gorria gure atzeko haitz gailurretan hasi zen ostentzen... »
senaiak	«... senaiako urgain osoa hegopean ia hartua zuen itzal erraldoi hartarantz besoa luzatuz.»
ubarroi	«...galdetu zidan Mariak orduan, jadanik, ubarroi baten itxuraz...»
laño	«Haren begiratzeko manera laño eta ohargabeak batera lotsatu eta errudun sentiarazi ninduen...»
tiraina	«Eta errazena egin nuen, eramaten utzi nion tirainari , eramaten.»
zakatz	«...biraka aritzen zen arrainaren zakatz eztena eztarrian sentitu arte.»
zinka	«Hasieran, eguzki zinkari egotzi nion errua.»
lakar	«...egunsentira arte, haizeak magnolia hosto lakarrekin jolasteari utzi zion arte.»
aloka	« Aloka ustel, maskor pusketa eta itsas izendruz beterik zeuden arroka gainak...»
izendru	«Aloka ustel, maskor pusketa eta itsas izendruz beterik zeuden arroka gainak...»
anbar	«...alditan eztiaren kolorea hartzen zuela, alditan anbar erretxinarena.»
erretxina	«...alditan eztiaren kolorea hartzen zuela, alditan anbar erretxina-rena. »
legar	«Azkenean, begiak gorriturik eta hoztu samar lehorreratu nintzen, eskukada bete legar baino lortua ez nuenean.»
zirzilu	«Zerbaitek esaten zidan nire pirata zirzilurik gabe geratuko nintzela...»
arrabete	«Berak abandonatua zirudien bidea erakutsi zidan, arrabeteko belar hazia baitzegoen gurpil aztarna harritsuaren artean.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

errari	«...eguzki eta abenturen bila etorri ohi diren horietako gazte erraria .»
huntz	«...atea bultzatuz sartu nintzen etxaldean, baita konturatu ere abandonuaren huntzak apenas ezkuta zitzakeela [...] kalteak.»
karkaba	«...ekialdera, karkaba sakona, non mahats parra fruitugabeak bata bestearen gainean nahastekatu egiten ziren...»
malkar	«...atzean, mendi malda malkarra , olatuen aparretaraino laprastean erortzen zena.»
ditxo	«...batzuk olatuen kontra borrokan, bestetzuk ilunabarreko ordu barean urruneko ditxoren batean ainguratuta.»
maskor	«...beldurra erabat uxatu gabe, maskor itxurako aldaba zaharra jo nuen nekatu arte.»
mingartu	«...aspaldi preso zegoen brisara mingartu batek itsasgizon baten etxean nengoela iragarri baitzidan.»
ezta urrik eman ere	«Zelan ezer esan? Ezta urrik eman ere! »
kuxidade	«Han ez zen kuxidaderik! »
sendartu	«...pilaturik zuten hauts geruza sendartua zela eta, edergailu bakoitzak bere historia eta leku sakratua zituela esan zitekeen...»
durdiduta	«...hasi zen deadarrak botaten, harik eta inguruko jente guztia, durdiduta , dardar baten imini arte.»
sunda	«"Baina ezin leike dana ixilik egin, eta haizeak ekarriko euskun noiz edo noiz itsasoaren bestaldeko sunda ."»
atralaka	«...errebolbera amerikanaren sakelan eta ebilen, karabineruek kendu eutsen arte, atralaka baten ondoren.»
mazitu	«Azkenean kala mazituteko , hainbesteko alperreko lurrik izanda.»
zetako	«Hona etorri erregina lez biziko zalakoan eta zetako? »
eskarnio egin	«Begirada hartan bazen orain [...] amenazu aire bat, itxuraz, nire xalotasunari trufa eta (...) sentimenduei eskarnio egiten ziena.»
xalotasuna	«Begirada hartan bazen orain [...] amenazu aire bat, itxuraz, nire xalotasunari trufa eta (...) sentimenduei eskarnio egiten ziena.»
aldaka	«Hondora bidean, ordea, estu-estu jarri zizkidan belaunburuak aldaken parean, eta hatz gakotuekin kalparretatik tiraka hasi.»
kalpar	«Hondora bidean, ordea, estu-estu jarri zizkidan belaunburuak aldaken parean, eta hatz gakotuekin kalparretatik tiraka hasi.»
xafila	«...lau pupitre ilada zuzen-zuzenetan [...] eskola dena betetzen zuen xafila bat eginez.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

trilu

«Txerria hiltzen baino arrantza eta **trilu** handiagoa jarri zuen.»

kanpazo

«Gainera, mendian artzain ibiltzen zena Julio zen eta nik Juliori eramaten nion lapikokoa, hartu **kanpazo** batean eta.»

trikean

«...baina esku banarekin lepagainetik heldu eta elkarren kontra **trikean** eginarazi nahi izan zigunean, ez zuen nahi zuena lortu...»

maskal

«Indar handiagoa behar zuen esku **maskal** haietan horretarako...»

prantatu

«...beren buruak estuegi hartuta ikusiz gero, atzera bueltatzeko ere **prantatu** egin baitzitezkeen.»